

Fiskalizazio Txostena
Informe de Fiscalización

**Arabako Lurralde Historikoaren
Erakunde Autonomoen eta Foru
Baltzu Publikoen gaineko
Kontu Orokorrak**

**Cuentas Generales de los
Organismos Autónomos y
Sociedades Públicas Forales del
Territorio Histórico de Álava**

1998

Vitoria-Gasteiz, 2000ko otsailaren 10a

Vitoria-Gasteiz, 10 de febrero de 2000



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas



AURKIBIDEA/ÍNDICE

LANAREN HEDADURA ETA SARRERA.....	3
ONDORIOAK	5
I. Iritzia	5
I.1 Erakunde Autonomoei buruzko iritzia	5
I.2 Baltzu Publikoei buruzko iritzia.....	7
II. Kontuak.....	11
II.1 Erakunde Autonomoen kontuak	11
II.2 Baltzu Publikoen kontuak.....	13
III. Erakunde Autonomo eta Foru Baltzu Publikoetako kudeaketari buruzko alderdiak eta Gomendioak	14
III.1 Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea	14
III.2 Gaztediaren Foru Erakundea	18
III.3 Araba Garapen Agentzia	18
III.4 Naturgolf, SA	19
III.5 Arabako Kalkulu Gunea, SA	20
III.6 Arabako Gune Historikoak kudeatzeko Baltzu Anonimoa, SA (ARABARRI)	20
INTRODUCCIÓN Y ALCANCE DEL TRABAJO	22
CONCLUSIONES	24
I. Opinión	24
I.1 Opinión sobre los Organismos Autónomos.....	24
I.2 Opinión sobre las Sociedades Públicas.....	26
II. Cuentas	30
II.1 Cuentas de los Organismos Autónomos	30
II.2 Cuentas de las Sociedades Públicas	32
III. Aspectos de gestión en Organismos Autónomos y Sociedades Públicas Forales y Recomendaciones	33
III.1 Instituto Foral de Bienestar Social	33
III.2 Instituto Foral de la Juventud	37
III.3 Álava Agencia de Desarrollo	37
III.4 Naturgolf, SA	38
III.5 Centro de Cálculo de Álava, SA	39
III.6 Sociedad Anónima de Gestión de los Centros Históricos de Álava, SA (ARABARRI)	39
ANEXO.....	41
A.1 Instituto Foral de Bienestar Social.....	41
A.2 Álava Agencia de Desarrollo, SA	45
A.3 Naturgolf, SA.....	49



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LANAREN HEDADURA ETA SARRERA

Arabako Lurralde Historikoko Kontu Orokorrak 1998ko ekonomia-urtealdian Arabako Foru Aldundiak eta foru-erakunde autonomoek eta foru-baltzu publikoek egindako aurrekontu, ondare eta diruzaintzako eragiketa guztiak barne hartzen ditu.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiak Arabako Lurralde Historikoko Kontu Orokorren fiskalizazioari dagokionez bi txosten egin ditu: bata, Arabako Foru Aldundiaren kontu orokorrerako eta, bestea, erakunde autonomo eta foru-baltzu publikoen kontu orokorrerako.

Erakunde autonomo eta foru-baltzu publikoen 1998ko urtealdiko kontuei buruzko txosten hau Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1998 Legeari jarraituz egin da eta epaitegi honek 1999ko apiriletik 2000ko martxora bitarteko aldirako duen Laneko Urteko Programaren barruan barne hartzen da.

Txosten honek ondoko alderdiak biltzen ditu:

- Legezkoak: aurrekontu, zorpetze eta finantza-eragiketa, pertsonal, obren kontratazio, erosketa eta zerbitzu, subentzio eta herri-eskubideko sarreraren araudiaren arloetan.
- Kontabilitatekoak: Kontu Orokorra aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioen arabera egiten den aztertzen da.
- Lanaren hedadurak ez du gastuaren eraginkortasunari buruzko azterketarik barne hartzen. Hala eta guztiz ere, aurkitutako urritasunak “kudeaketari buruzko alderdiak eta gomendioak” epigrafean zehazten dira.

Ondoren, erakunde autonomoak eta foru-baltzu publikoak eta beren jarduerak laburbilduko ditugu:

- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea / GOFE (erakunde autonomoa): gizarte-zerbitzuekin lotzen diren jarduerak antolatu, kudeatu, egin eta burutzea.
- Gaztediaren Foru Erakundea / GFE (erakunde autonomoa): gaztedia osotasunean prestatu eta trebatzea.
- Araba Garapen Agentzia, SA / AGA (baltzu publikoa, %100eko partaidetza): industrializazioaren bultzada eta sustapen integrala.
- Naturgolf, SA (baltzu publikoa, %99ko partaidetza): naturgunearekin lotzen diren eta naturgunearen gizarte eta ekonomiaren arloa garatzen eta hobetzen lagunduko duten hainbat jarduera, aberastasuna eta okupazioa sortuko duten ekimenak, parke naturalen kudeaketa barne, bultzatuz. Gaur egun jarduera Urturi eta Lagrango golf-zelaiaren ustiapenean oinarritzen da.
- Arabako Kalkulu Gunea, SA (baltzu publikoa, %100eko partaidetza): ustiapen eta garapen informatikoarekin lotzen diren zerbitzuak egitea.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Arabako Gune Historikoen Kudeaketa Baltzua (ARABARRI) (baltzu publikoa, %57ko partaidetza): birgaikuntza integraleko arloen esparruko jardun desberdinak.
- Arabako Lanak, SA (baltzu publikoa, %100eko partaidetza, 1998ko abenduaren 11n eratua): baltzu honen xede soziala bere izenean edo Arabako Foru Aldundiaren kontura mota guztietako azpiegituretarako herri-lanak proiektatzean, eraikitzean, kontserbatzean eta ustiatzean datza. Baltzu honek 1998ko urtealdian bere xede sozialarekin lotzen den jarduerarik garatu ez duenez gero, txosten honetan ez da baltzu honen kontua aztertuko.

Aipatu ditugun erakunde eta baltzuei dagokienez egindako azterketa kanpo-ikuskaritzako txostenak eta txosten hauen euskarri diren laneko paperak berraztertzean oinarritu da eta txostena zabaldu egingo da fiskalizazioa egiteko beharrezkoa gertatzen den alderdi horietan guztietan.



ONDORIOAK

I. IRITZIA

I.1 ERAKUNDE AUTONOMOEI BURUZKO IRITZIA

I.1.1 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEARI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritziz eta egindako azterketaren ondorioz, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea izeneko erakunde autonomoak zentzuz bete du 1998ko urtealdian bere ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen duen legezko araudia eta bere kontuek urtealdi horretan burututako ekonomia-jardueraren alderdi esanguratsu guztiak ematen dituzte aditzera, bai eta urtealdi hau ixterakoan finantza-egoeraren eta ondarearen eta bere eragiketen emaitzen azalpen zehatza ere, ondoren zehazten diren legehausteak eta salbuespenak jasota.

Legehausteak

- 1.-898/98 Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak langileen ordainsariak egokitzea eta aldatzea onartzen du eta honen ondorioz, ordainsariak, oro har, %2,5 gehitu dira urtean. Hori dela-eta, ez da 1998rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko 65/1997 Legearen 18.2. artikuluan ezarritakoa betetzen, bertan 1998ko urtealdirako sektore publikoaren ordainsariek gehienez ere 1997ko urtealdikoekiko %2,1eko gehikuntza izan behar dutela ezartzen baita.
- 2.-Egoitzetarako produktuak erosteko egindako hornidura-kontratuak lau espedienteetan (guztira 171 milioi pezetako zenbatekoan esleituak) ondoko akatsak antzeman dira: kontratazio-organoak espedienteak onartzen duela jasotzen duen erabakirik eza, lizitazio-aurrekontua eta aleko prezioak ezartzen ez dituzten eta esleipen-unitatea zein den argi eta garbi zehazten ez duten administrazio-klausulak.
- 3.-Etxeko Laguntza Zerbitzuaren kanpo-kontratazioak (1998ko urtealdian 900 milioi pezetako gastua izan zuenak) objektiboak ez diren eta neurtuta ez dauden irizpideak jarraitzen ditu (esperientzia esate baterako), Herri Administrazioen Kontratuen Legearen 87. artikuluan ezarritakoaren aurka, eta administrazio-klausula partikularren pleguan jasotzen ez diren irizpideen arabera, 1996an esleitutako kontratuei emandako luzapenetan oinarritzen da. Sei enpresak jaso zuten esleipena eta, haatik, pleguak ez zituen loteak aintzat hartzen (ikus A.1.6).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I.1.2 GAZTEDIAREN FORU ERAKUNDEARI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritziz eta egindako azterketaren ondorioz, Gaztediaren Foru Erakundea izeneko erakunde autonomoak zentzuz bete du 1998ko urtealdian bere ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen duen legezko araudia eta bere kontuek urtealdi horretan burututako ekonomia-jardueraren alderdi esanguratsu guztiak ematen dituzte aditzera, bai eta urtealdi hau ixterakoan finantza-egoeraren eta ondarearen eta bere eragiketen emaitzen azalpen zehatza ere, ondoren zehazten diren ez-betetzeak eta salbuespenak jasota.

Legea ez betetzeak

- 1.-76/98 Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak langileen ordainsariak egokitzea eta aldatzea onartzen du eta honen ondorioz, ordainsariak, oro har, %2,5 gehitu dira urtean. Hori dela-eta, ez da 1998rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko 65/1997 Legearen 18.2. artikuluan ezarritakoa betetzen, bertan 1998ko urtealdirako sektore publikoaren ordainsariak gehienez ere 1997ko urtealdikoekiko %2,1eko gehikuntza izan behar dutela ezartzen baita.
- 2.-Gaztediaren Foru Erakundeak publizitatearen eta lehiaren printzipioak saihestu eta ondasunak erosi eta zerbitzuak kontratatu ditu ondoko kasuetan: publizitate-kanpainak 6 milioi pezetako zenbatekoan, elikagaiak 21 milioi pezetako zenbatekoan eta garbiketa-produktuak 6 milioi pezetako zenbatekoan.



I.2 BALTZU PUBLIKOEI BURUZKO IRITZIA

Foru Baltzu Publikoen Kontu Orokorrak ez ditu Laudioko Elkartegia, SA eta Asparrenako Elkartegia, SA baltzu publikoak barne hartzen, baltzu hauetako partaidetzarik nagusia, Araba Garapen Agentzia, SA baltzuan duen partaidetzaren bitartez, Arabako Foru Aldundiarena bada ere; izan ere azken honen akziodun bakarra da. Baltzu hauetan duen partaidetza %89koa eta %98koa da, hurrenez hurren.

Baltzu publiko desberdinek legea betetzeari buruz emandako iritzietatik ondoriozta daitekeenez, administrazioaren kontratazioetan ez dira orokorrean publizitatearen eta lehiaren (eskaintzak eskatzea) printzipioak betetzen. Era berean, Arabarri eta Kalkulu Gunea, SA baltzuetako langileak kontratatzerakoan ez dira berdintasunaren, merituen eta gaitasunaren printzipioak bete.

I.2.1 ARABA GARAPEN AGENTZIA, SA BALTZUARI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritziz eta egindako azterketaren ondorioz, Araba Garapen Agentzia, SA baltzu publikoak zentzuz bete du 1998ko urtealdian bere ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen duen legezko araudia eta bere kontuek urtealdi horretan burututako ekonomia-jardueraren alderdi esanguratsu guztiak ematen dituzte aditzera, bai eta urtealdi hau ixterakoan finantza-egoeraren eta ondarearen eta bere eragiketen emaitzen azalpen zehatza ere, betiere hurrengo 5 paragrafoetan zehazten diren ez-betetzeak eta 6. paragrafoan adierazten den zalantzak izan ditzakeen ondorioak salbuetsita.

Legea ez betetzeak

- 1.-Baltzuak 590 milioi pezetako zenbatekoa duten enpresa-proiektuetarako diru-laguntzak eman ditu, ez ditu publizitatearen eta lehiaren printzipioak aplikatu eta ez die Batzar Nagusiei diru-laguntza hauen berri eman (diru-laguntzei buruzko 3/1997 Foru Arauaren 7. eta 9.3. artikulua).
- 2.-Industrialdeetan egindako inbertsioetan, baltzuak 101 milioi pezeta kontratatu ditu, baltzu publikoen kontratazioen kasuan aplikatu behar den publizitatearen printzipioa aplikatu gabe. Aurreko zenbateko horretatik 73 milioi pezetako zenbatekoa duen kontrataziorako lehiaren printzipioa (eskaintzak eskatzea) aplikatu da.
- 3.-Baltzuak higiezin gaietarako aholkulari batekin sinatu duen kontratuaren bitartez, Arabako Garapen Agentziak aholkulari honi esku hartzen duen lursailen salmentaren prezioaren %5 ordaintzen dio; eteteko baldintzaren bat izanez gero, %1 ordainduko da kontuan eta gainerakoa adierazitako baldintza betetzen dela egiaztatzen den unean ordainduko da. Adierazitako %1 horren bitartez Arabako Garapen Agentziak 8,5 milioi ordaindu ditu 1998. urtean, kontratuan publizitatearen eta lehiaren printzipioak errespetatu gabe. Bestalde, hirigintza-kudeaketako gaietarako profesional independente baten aholkularitza-zerbitzua kontratatu da, 3 milioi pezetako zenbatekoan, publizitatearen eta lehiaren printzipioak errespetatu gabe.



- 4.- Baltzuak 1.000 milioi pezetako muga eta urtebeteko epea duen kreditu-poliza sinatu du finantza-entitate batekin. Kreditu-poliza honetan erabilitako saldoa urtealdia ixterakoan 648 milioi pezetakoa izan da. Ez dago Arabako Foru Aldundiak eragiketa hau burutzeko, 1998rako Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontua burutzeari buruzko 33/1997 Foru Arauaren 4.5. artikulua ezartzen duenari jarraituta, eman beharreko baimena jasota.
- 5.- 1998ko urtealdian ordainsarrietan aplikatutako gehikuntzak ez du 1998rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko 65/1997 Legearen 18.2. artikuluan ezarritako muga errespetatzen.

Finantza-zalantza eta nabarmentzeko paragrafoa

- 6.- Baltzuaren finantza-ibilgetuaren eta izakinen burutzapen-prezioa baltzuaren xede soziala (industrializazioa bultzatzea eta sustatzea) betetzearekin lotzen diren gizarte eta ekonomiako interesen menpe dago batzuetan eta, hori dela-eta, aktibo horien jabetza eskualdatzerakoan kontabilitate-galerak gerta daitezke.
- 7.- 1998an zehar Araba Garapen Agentzia, SA baltzuak 788 milioi pezeta jaso ditu Arabako Foru Aldunditik galerak konpentsatzeko bazkideen ekarpenaren kontzeptuan. Ekarpene hauek baltzuaren beraren finantzaketan aldaketa ekarri dute, aurreko urtealdira arte, batik bat, ustiapenerako diru-laguntzetako ekarpen gisa gauzatu baitira.

1.2.2 NATURGOLF, SA BALTZUARI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzi eta egindako azterketaren ondorioz, Naturgolf, SA baltzu publikoak zentzuz bete du 1998ko urtealdian bere ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen duen legezko araudia eta bere kontuek urtealdi horretan burututako ekonomia-jardueraren alderdi esanguratsu guztiak ematen dituzte aditzera, bai eta urtealdi hau ixterakoan finantza-egoeraren eta ondarearen eta bere eragiketen emaitzen azalpen zehatza ere, ondoko paragrafoetan zehazten diren ez-betetzeak izan ezik.

Legea ez betetzeak

- 1.- Ez da Herri Administrazioen Kontratuen Legean (Seigarren Xedapen Gehigarria) aurreikusitako publizitatearen printzipioa aplikatu ekipamendu eta makineria erosterakoan, 17 milioi pezetako zenbatekoan. Era berean, hiru segamakina 7 milioi pezetan erosteko, aurreko zenbatekoan barne hartua, ez da eskaintzarik eskatu eta, hortaz, ez da lehiaren printzipioa bete (ikus A.3.2. eranskina).
- 2.- 1998an indarrean dirau 1997. urtean bi urte eta erdiko iraupenerako izenpetutako aholkularitza-kontratuak, kontratu honek urtesari bateko zenbatekoa duen kalte-ordainerako klausula jasotzen du, baldin eta Naturgolf, SA baltzuak kontratua bere aldetik deusezten badu. 1998ko urtealdirako 4,6 milioi pezetako zenbatekoa duen kontratu hau egiterakoan ez ziren Herri Administrazioen Kontratuen Legean ezartzen diren publizitatearen eta lehiaren printzipioak bete.



- 3.-Parke Naturalak kudeatzeko gastuei dagokienez, ondoko gastuetan publizitatearen printzipioa bete ez dela ikusi dugu: Sarrián-Gorbeia Parke Naturalean guztira 15 milioi pezetako zenbatekoa duten egokitzapen-obra; Gorbeia eta Izkiko Parke Naturaletan guztira 7 milioi pezetako zenbatekoa duten seinaleztapen-lanak; Valderejoko Parke Naturaleko floraren azterketa, guztira 2 milioi pezetako zenbatekoa. Gastu hauetako batzuetarako, halaber, ez da lehiaren printzipioa bete (ez da eskaintzarik eskatu): Sarriako egokitzapenaren gastua, 4 milioi pezetako zenbatekoa; Gorbeia Parke Naturaleko seinaleztapen-lanen gastua, 3,5 milioi pezetako zenbatekoa; eta Valderejoko Parke Naturaleko floraren azterketa (ikus A.3.5. eranskina).
- 4.-1998ko urtealdian ordainsarrietan aplikatutako gehikuntzak ez du 1998rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko 65/1997 Legearen 18.2. artikuluan ezarritako muga errespetatzen.

I.2.3 ARABAKO KALKULU GUNEA, SA BALTZUARI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzi eta egindako azterketaren ondorioz, Arabako Kalkulu Gunea, SA baltzu publikoak zentzuz bete du 1998ko urtealdian bere ekonomia- eta finantza-jarduerara arautzen duen legezko araudia eta bere kontuek urtealdi horretan burututako ekonomia-jardueraren alderdi esanguratsu guztiak ematen dituzte aditzera, bai eta urtealdi hau ixterakoan finantza-egoeraren eta ondarearen eta bere eragiketen emaitzen azalpen zehatza ere, ondoko paragrafoetan zehazten diren ez-betetzeak eta salbuespenak izan ezik.

Legea ez betetzeak

- 1.-Baltzuak 1998an 166 milioi pezetako programazio-gastuak izan ditu eta programazio gastu hauek kanpoko enprekin kontratatzerakoan ez dira baltzu publikoen kontratazioari aplika dakizkikeen publizitatearen eta lehiaren printzipioak bete. Gainera, 19 milioi pezetako beste programazio-gastu batzuetan publizitatearen printzipioa bete ez bada ere, eskaintzak eskatu dira. Kanpoko programazio-enpresekiko erlazioak iraganeko zenbait urtealditan ere azaltzen dira (1992, 1993, 1995) eta gaur egungo gastuaren euskarria, aldiz, jatorrizko kontratuak dira, urtero prezioak berrikusteko komunikazioak egiten diren arren.
Era berean, kanpoko zerbitzuetako eta garbiketako gastuak ere, 22 eta 6 milioi pezetako zenbatekoa dutenak, hurrenez hurren, publizitatearen eta lehiaren (eskaintzak eskatzea) printzipioak bete gabe kontratatu dira.
- 2.-urtean baltzuak aldi baterako 2 kontratu kontratu mugagabe bihurtu ditu berdintasunaren, merituen eta gaitasunaren printzipioak errespetatu gabe eta aldi berean kanpoan kontratatutako kategoria bereko postuak barne hartzen zituen hautespen-prozesu bat egiten zen bitartean.



3.-1998ko urtealdian ordainsarrietan aplikatutako gehikuntzak ez du 1998rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko 65/1997 Legearen 18.2. artikuluan ezarritako muga errespetatzen.

Finantza-salbuespena

4.-Baltzuak 146 milioi pezetako zenbatekoa duten zenbait proiektu soilik fakturatu dizkio Arabako Foru Aldundiari, egindako zerbitzuen gainerakoa ustiapenerako subentzioaren bitartez, 698 milioi pezetako zenbatekoarekin, finantzatzen da eta honek ez du Balio Erantsiaren gaineko Zerga jasanarazten.

I.2.4 ARABAKO GUNE HISTORIKOEN KUDEAKETA BALTZUARI (ARABARRI) BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritziz eta egindako azterketaren ondorioz, Arabarri, SA baltzu publikoak zentzuz bete du 1998ko urtealdian bere ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen duen legezko araudia eta bere kontuek urtealdi horretan burututako ekonomia-jardueraren alderdi esanguratsu guztiak ematen dituzte aditzera, bai eta urtealdi hau ixterakoan finantza-egoeraren eta ondarearen eta bere eragiketen emaitzen azalpen zehatza ere, ondoko paragrafoetan zehazten diren ez-betetzeak izan ezik.

Legea ez betetzeak

- Baltzu publikoak bi lan eta bi azterketa arkeologiko esleitu ditu, guztira 59 milioi pezetako zenbatekoarekin, publikitatearen printzipioa bete gabe. 20 milioi pezetako zenbatekoarekin kontratatutako azterketa arkeologiko baterako lehiaren printzipioa ere ez da betetzen, ez baita eskaintzarik eskatu.
- 1998. urtean arkitekto tekniko bat izaera mugagabez kontratatzerakoan ez dira berdintasunaren, merituen eta gaitasunaren printzipioak errespetatu, ondoko arrazoiak direla-eta: lanpostua lortzeko adina mugatu egiten da, oinarrien arabera baldintzak betetzen dituzten eskaera guztien artean hiru pertsonako izangaien zerrenda egingo da (honetarako inolako irizpiderik finkatu gabe) eta, azkenik, oinarrietan ez da merituak baloratzeko modua kuantifikatzen.



II. KONTUAK

II.1 ERAKUNDE AUTONOMOEN KONTUAK

A. 1998ko URTEALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Milioi pta.

SARRERAK	GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA			GAZTEDIAREN FORU ERAKUNDEA		
	AMAIERAKO AURREK.	ESKUBIDE LIKIDATUAK	KOBRANT.	AMAIERAKO AURREK.	ESKUBIDE LIKIDATUAK	KOBRANT.
3.-Tasak eta bestelako sarrerak.....	1.234	1.277	1.077	177	159	155
4.-Transferentzia arruntak	9.138	9.061	8.404	386	386	374
5.-Ondare-sarrerak	4	5	3	0	1	1
6.-Inbertsio errealen bestereng.	0	0	0	0	0	0
7.-Kapital-transferentziak	391	375	320	15	16	16
8.-Finantza-aktiboen aldaketa.....	40	22	22	1	1	1
AURREKONTU ARRUNTA GUZTIRA	10.807	10.740	9.826	579	563	547
GERAKINAK	729	729	718	14	14	14
SARRERAK GUZTIRA	11.536	11.469	10.554	593	577	561
GASTUAK	AMAIERAKO			AMAIERAKO		
	AURREK.	OBLIGAZIO ONARTUAK	ORDAINK.	AURREK.	OBLIGAZIO ONARTUAK	ORDAINK.
1.-Pertsonalaren ordainsariak.....	5.175	5.172	4.940	268	267	267
2.-Ondasun arrunt eta zerb. erosk... .	2.899	2.897	2.613	243	242	236
4.-Transferentzia arruntak	2.294	2.274	2.223	39	37	37
6.-Inbertsio errealak	98	95	72	14	14	14
7.-Kapital-transferentziak	301	274	126	1	1	1
8.-Finantza-aktiboen aldaketa.....	40	28	28	14	2	2
AURREKONTU ARRUNTA GUZTIRA	10.807	10.740	10.002	579	563	557
GERAKINAK	675	675	675	2	2	2
GASTUAK GUZTIRA	11.482	11.415	10.677	581	565	559

B. 1998ko ABENDUAREN 31ko EGOERAREN BALANTZEA

Milioi pta.

	GOFE		GFE	
	1998	1997	1998	1997
AKTIBOA				
lbilgetua.....	4.770	6.214	668	670
Zordunak	934	733	16	14
Finantza-kostuak	75	120	3	3
AKTIBOA GUZTIRA	5.779	7.067	687	687
PASIBOA				
Ondarea.....	352	352	1	1
Adskripzioko ondarea.....	4.968	6.305	675	653
Itxitako urtealdiko emaitzak	(434)	(540)	18	23
Urtealdiko emaitza	(101)	106	(24)	(5)
Epe luzerako hartzekodunak.....	8	5	0	0
Epe laburrerako hartzekodunak	986	839	17	15
PASIBOA GUZTIRA	5.779	7.067	687	687



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

	C. 1998ko URTEALDIKO GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA		Milioi pta.	
	GOFE		GFE	
	1998	1997	1998	1997
SARRERAK				
Negozio-zifraren zenbateko garbia.....	1.274	1.110	159	147
Kudeaketa arrunteko bestelako sarrer. .	2	2	0	0
Kapital-transferentziak eta -subentz. . . .	375	198	17	15
Transf. eta subentzio arruntak	9.059	8.617	385	364
BESTELAKO SARRERAK	10.710	9.927	561	526
GASTUAK				
Pertsonal-gastuak	5.172	4.805	267	255
Ibilgetu-amortizazioa	167	167	34	30
Transf. eta subentzio arruntak	2.274	2.935	37	44
Kapital-transferentziak eta -subentz.	274	98	1	1
Kaudimengabez.hornidurarako zuzkid.	1	30	0	0
Bestelako ustiapen-gastuak.....	2.932	2.047	247	222
GASTUAK GUZTIRA	10.820	10.082	586	552
USTIAPENAREN EMAITZA	(110)	(155)	(25)	(26)
Finantza-emaiza	5	5	1	1
Itxitako urtealdietako emaitzak	4	255	0	4
Ezohiko emaitzak	0	1	0	16
URTEALDIAREN EMAITZA	(101)	106	(24)	(5)



II.2 BALTZU PUBLIKOEN KONTUAK

A. 1998ko ETA 1997ko ABENDUAREN 31ko EGOERAREN BALANTZEA

Miloi pta.

	AGA		NATURGOLF		KALKULU GUNEA		ARABARRI	
	1998	1997	1998	1997	1998	1997	1998	1997
AKTIBOA								
Ibilgetua	4.861	3.104	480	440	10	12	8	10
Hainbat ek. banatu beh. gastua..	2	2	9	21	0	0	0	0
Izakinak	2.839	4.057	1	1	0	0	0	0
Zordunak	314	258	11	34	210	234	139	111
Finantza-kostuak	79	9	69	56	11	5	13	70
AKTIBOA GUZTIRA	8.095	7.430	570	552	231	251	160	191
PASIBOA								
Izenpetutako kapitala	6.389	6.130	441	381	134	134	11	11
Itxitako urtealdiko emaitzak.....	272	(502)	(65)	(24)	(3)	(1)	12	6
Urtealdiko emaitza	(743)	(13)	(55)	(41)	(3)	(3)	1	7
Hainbat ek. banatu beh. sarrer. ...	285	298	169	178	0	46	22	16
Arrisku eta gastuetarako hornid....	39	38	43	32	0	0	0	0
Epe luzerako hartzekodunak.....	0	0	0	0	0	0	9	7
Epe laburrerako hartzekodunak	1.853	1.479	37	26	103	75	105	144
PASIBOA GUZTIRA	8.095	7.430	570	552	231	251	160	191

B. 1998ko ETA 1997ko URTEALDIETAKO GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA

Miloi pta.

	AGA		NATURGOLF		KALKULU GUNEA		ARABARRI	
	1998	1997	1998	1997	1998	1997	1998	1997
SARRERAK								
Negozio-zifraren zenbateko garbia	986	217	50	45	161	104	0	0
Izakinen aldaketa	(362)	354	0	0	0	0	0	0
Kudeaketa arrunt. bestelako sarrer.		0	60	54	0	0	0	0
Kapital-transferentz. eta -subentz.	94	711	27	2	703	490	174	207
Transf. eta subentzio arruntak	0	273	0	25	0	0	3	3
BESTELAKO SARRERAK	718	1.615	131	72	864	594	177	210
GASTUAK								
Hornidurak.....	504	1.101	4	7	0	0	0	0
Pertsonal-gastuak.....	46	40	15	12	479	447	39	38
Ibilgetu-amortizazioa	7	7	35	28	3	3	3	3
Izakinen horniduraren aldaketa.....	47	(74)	0	0	0	0	0	0
Transf. eta subentzioak	0	0	0	0	0	0	129	159
Bestelako ustiapen-gastuak	778	492	133	67	385	147	6	6
GASTUAK GUZTIRA	1.382	1.566	187	114	867	597	177	206
USTIAPENAREN EMAITZA	(664)	49	(56)	(42)	(3)	(3)	0	4
BESTELAKO EMAITZAK	(79)	(62)	1	1	0	0	1	3
URTEALDIAREN EMAITZA	(743)	(13)	(55)	(41)	(3)	(3)	1	7



III. ERAKUNDE AUTONOMO ETA FORU BALTZU PUBLIKOETAKO KUDEAKETARI BURUZKO ALDERDIAK ETA GOMENDIOAK

III.1 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

ERAKUNDEAREN ANTOLAMENDUA

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bere antolamendua ekonomia jardueren eta deszentralizatutako foru-zerbitzu publikoen kudeaketari buruzko 15/1987 FAri jarraituta, Erakundea eratzeko 21/1988 FAri jarraituta eta Antolamendu, araubide eta funtzionamenduari buruzko 1620/1988 FDri jarraituta antolatu du.

Gizarte Ongizaterako Sailaren eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egituraketa eta funtzionamenduari buruzko arauak eguneratzea beharrezkoa dela uste dugu, Sailaren eta Erakunde Autonomoaren arteko eskumenen zati-banaketa eta izendapena argitzearren. Era berean, beharrezkoa da horietan dauden kontraesan eta zehazgabetasunak bideratzea, batik bat, Erakundearen agintaritzataleak eskumenak izendatzeari eta kudeaketari dagokionez. Gaur egun indarrean dagoen araudia eguneratzeko beharra are larriagoa da Foru Erakundearen aurrekontu bolumena (10.000 milioi pezeta) eta Gizarte Zerbitzuei buruzko 5/1996 Legearen onarpena aintzat hartzen badugu; izan ere, lege horri egokitu beharko zaio erakundearen jardura.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiaren arauak erakunde autonomoei dagokienez ez dituzte zaintza eta kontrolerako behar adinako baliabideak; honela, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen kasuan gidaritzatza organoak izenpetzen ari diren kontratuak Diputatu Nagusiak ahal baino zenbateko handiagokoak dira.

Urtealdi bakoitzeko aurrekontua burutzeko arauak egoera hau zuzentzeko beharrezko baliabideak ezarri behar dituela uste dugu.

ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Etxeko Laguntza Zerbitzua egiteak eragindako gastuari dagokionez, ondoko alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Etxeko Laguntza Zerbitzua egitearen oinarri arautzaileak 1998ko urriaren 13ko Gizarte Ongizaterako Administrazio Kontseiluak onartu ditu eta 1998ko azaroaren 20ko Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira.
- Etxeko Laguntza Zerbitzua ematen duten enpresek Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan izena eman dutenik ez da inon ageri, Gizarte Zerbitzuei buruzko 5/1996 Legearen 10. artikulua agintzen duen moduan. Honi dagokionez esan behar dugu, espedientea 1996an bideratu zen unean betekizun hau agintzen duen Gizarte Zerbitzuei buruzko Lege berria indarrean sartu gabe bazegoen ere, luzapena gauzatu zen unean jada aplikagarria zela.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen araua betetzeari dagokionez ezarritako prozeduren berrazterketan honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- 3.3 artikulua laguntza jasotzeko balioezintasun edo elbarritasun larria izan behar dela ezartzen du.

Egoera honetan bil daitezkeen kasuak zehaztu edo zerrendatu egin behar direla iruditzen zaigu, hala arauaren interpretazioa errazteko.

- 15. artikulua Etxeko Laguntza Zerbitzuaren jarraipena egingo dela eta aldizka honi buruzko txostena egingo dela ezartzen du; bertan, programatu diren banakako helburuak lortu izana, laguntzaren denbora eta intentsitatearen egokitasuna eta onuradunaren asetasuna aipatuko da. Jarraipen hau, praktikan, gizarte-laguntzaileek eurek egiten dute, baina idatziz ezer ere jaso gabe; honenbestez, ez du inongo eraginkortasunik.

Emandako zerbitzuaren gaineko jarraipenaren alderdi garrantzitsu honek dagokion txostenaren bitartez kontrolatuta egon behar duela uste dugu, egindako zerbitzuari buruzko alderdi esanguratsu guztiak jasoz.

LANGILERIA-GASTUAK

Ondoren, alor honetan aurkitu diren alderdirik adierazgarrienak azpimarratuko ditugu:

- 1998ko Hitzarmen Kolektiboak 1997ko ordainsarien taulen gaineko %2,1eko gehikuntza barne hartzen duten ordainsarien taulak jasotzen ditu, nahiz eta ordainsarrietan aplikatu den gehikuntza %2,5ekoa izan den, Diputatuen Kontseiluak onartutako ordainsarien taulen arabera.
- Hiru Zuzendari Teknikoen eta Zuzendari Ekonomikoaren postuek ez dute baloraziorik lanpostuen zerrendan; postu hauek ez daude zuzendaritza-langile eta konfidantzazko karguentzat gordeta.
- Azkenik, Diputatuen Kontseiluak, 1998ko martxoaren 10ean egindako bilkuran Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendari-Kudeatzailearen ordainsaria aztertu zuen eta goi-kargudunen araubidea zuzentzen duen 22/1991 FAr egokitzen ez zitzaizola aitortu zuen, izan ere, Foru Administrazio Orokorreko zuzendarientzat finkatutakoa gainditzen baitu eta ez baita muga hori gainditzeko berariazko akordiorik hartu. Bilkura horretan bertan, egitez ordainsari-maila bat eskuratuta dagoela abiapuntutzat hartuta, Diputatuen Kontseiluak urteko ordainsariak 1996an jasotzen zituen zenbateko horretan finkatzea erabaki zuen. Ordainsari honek 1997ko urtealdiaren hasieratik du indarra eta aldaketarik gabe eutsiko dio harik eta Konfiantzazko Karguentzat Foru Araudian zehaztutakoak gainditzen ez dituen bitartean.



KONTRATAZIOA

Hona hemen alor honetan antzeman ditugun alderdirik esanguratsuenak:

- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ez du kontratazio-espedienteen erregistrorik.

Urtealdian bideratuko diren eta espedientearen oinarritzko informazioa bilduko duten kontratazio-espedienteen erregistro normalizatua egiteko beharrezkoak diren neurriak finkatu behar liritekeela uste dugu. Erregistro honek urtealdian izapidetu diren kontratuen luzapenak ere jaso beharko lituzke.

- Egoitzetarako produktuak erosteko lau hornigairen kontratazio-espedienteetan (guztira 171 milioi pezetako zenbatekoarekin esleituak), ez dira gastua baimendu eta erabiltzeko kontabilitate-agiriak bideratzen eta fase hauek obligazioa aitortzen den unean erregistratzen dira kontabilitatean.
- Organización Médica de Vitoria, SL baltzuarekin egoitzetan egonaldi luzeak egiteko gauzatutako zerbitzuen kontratazioa (219 milioi pezetako gastua 1998an) eta La Esperanza klinikarekin egindako minusbaliatasun-zerbitzuen kontratazioa (51 milioi pezetako gastua 1998an) publizitaterik gabeko negoziazio-prozeduraren bidez esleitu dira. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hau justifikatzeko lehenengo kasuan Gasteizen ez dagoela zerbitzu hori eman dezakeen beste zentrorik ematen du aditzera eta bigarrean, berriz, zerbitzuaren kalitate eta baliagarritasun irizpideak erabili dituela adierazten du.
- Minusbaliatuen tailerretarako material plastikoa, 27 milioi pezetako zenbatekoa duena, eta Laudioko Lanerako Tailer eta Zentroaren catering-zerbitzua, 6 milioi pezetako zenbatekoa duena, erosketatik txikien prozeduraren arabera bideratzen da; urtealdian egin beharreko erosketak planifikatuz gero, kontratazio-espedienteak publizitatearen eta lehiaren printzipioak gordez bidera daitezkeela uste dugu.

ONGINTZAZKO ELKARTEEKIN IZENPETUTAKO HITZARMENAK

1998ko urtealdian gastu arruntaren idazpurupean ongintzazko elkarteekin lankidetzahitzarmenak izenpetu dira; horietatik zazpi adierazgarrienak bereizi ditugu, urtealdian 353 milioi pezetako gastua egin dutenak (ikus A.1.6). Lankidetzahitzarmen horien helburua Erakundearen eskumeneko diren hainbat zerbitzu elkarte horiek ematea da. Horren trukean Erakundeak euren defizitari aurre egiteko behar besteko zenbatekoa finantzatzen die eta, bestalde, elkarteek egindako gastu guztien egiaztagiriak aurkezteko obligazioa dute.

Kontratu baten bitartez arautu behar den zerbitzugintza dela uste dugu, bertan egingo den zerbitzuaren prezioa zehaztuz; Elkarte horiek duten gizarte-interesa dela-eta, euren defizita finantzatzea beharrezkoa izate kaltetu gabe.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ZERBITZUGINTZAGATIKO SARRERAK

Erakundeak 1998. urtean aplikatu beharreko prezio publikoak finkatzen dituen araudiak (urtarrilaren 27ko 4/1998 Foru Dekretuak onartzen duena), "zorraren aitortpena" irudia arautzen du, arauan bertan (11. artikulua) aipatzen diren hobarietara biltzen diren Hirugarren Adinekoentzako Egoitza eta Etxebizitza Babestuen erabiltzaile guztientzat. Irudi honen arabera, erabiltzaile guztiek gehieneko zenbatekoak ordaindu behar dituzte eta gehieneko horri aurre egiteko likidezirik izan ezean, erabiltzaileak "zorraren aitortpena" izenpetu behar du, hobariak aplikatzearen emaitzazko prezio publikoaren eta gehieneko tarifa horren arteko aldeगतik, hartara hiltzen denean edo zentroan baja ematen duenean, erabiltzailearen ondarearen aurka jardungo da.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ez ditu erabiltzaileak aitortzen duen zorrari loturik behin betiko bermeak eskatzen, interesatuari agiri pribatu bat izenpetzeko soilik eskatzen zaio eta agiri honetan eska lekizkiokeen bermeak emateko konpromisoa ezezik, bere ondasunak ez besterentzeko konpromisoa ere hartzen du. Bestetik, ez da arautu zein egoeratan erabili behar den zorraren aitortpena.

Gure iritziz komenigarria da berme egokiak eta irudi horretara heltzeko bete behar diren baldintzak arauz finkatzea, hartara zorraren aitortpenari eraginkortasuna ematearren.



III.2 GAZTEDIAREN FORU ERAKUNDEA

AURREKONTU-EGITERAPENA

Gaztediaren Foru Erakundeak bere antolamendua honako foru-arau hauen arabera antolatu du: ekonomia-jardueren eta deszentralizatutako foru-zerbitzu publikoen kudeaketari buruzko urriaren 30eko 15/1987 FAren arabera, erakundea eratzeko 22/1988 FAren arabera eta Antolamenduari, araubideari eta funtzionamenduari buruzko 1701/1988 FAren arabera. Arau horietan gehiegizko zorrozatasuna antzeman da, Erakundearen zuzendari-kudeatzailearen kargu utzi ez diren eginkizun guztiak Administrazio Kontseiluaren esku uzten direla-eta. Horrez gain, kontraesanak ere ikusi dira, 1701/1988 FDk Gaztediaren Foru Erakundearen lehendakaria izendatzen du ordainketen agindu-emaila eta 22/1988 FAk, berriz, zuzendari-kudeatzailea izendatzen baitu.

Gaztediaren Foru Erakundearen eragina duten arauak berrikustea gomendatzen dugu, kontraesanak zuzentzeko eta organo bakoitzaren eskumenen deskribapen argia eta zehatza egiteko.

KONTRATAZIOA

Gaztediaren Foru Erakundeak ez du kontratazio-espeditenteen erregistrorik.

Urtealdian bideratuko diren eta espeditentearen oinarritzko informazioa bilduko duten kontratazio-espeditenteen erregistro normalizatua egiteko beharrezkoak diren neurriak finkatu behar liratekeela uste dugu. Erregistro honek urtealdian izapidetu diren kontratuen luzapenak ere jaso beharko lituzke.

III.3 ARABA GARAPEN AGENTZIA

– Araba Garapen Agentziako Administrazio Kontseiluak 1998ko irailaren 29an Gasteizko Industria Lurra, SA baltzuekin batera Jundizko industrialdean kokatzen diren zenbait hiri-finka 1.500 milioi pezetako zenbatekoan erostea erabaki zuen, ondoko proportzioan Araba Garapen Agentziak heren bat eta Gasteizko Industria Lurra, SAK bi heren. Prezioaren ordainketa bi urtez atzeratzen da eskritura gauzatzen den egunetik, 1999ko otsaila, eta banku-abal bidez bermatuko da. Erabaki berean aholkularitza-enpresa pribatu bati adierazitako lurra erosteko aukera eskaintzen zaio eta aukera hau bi urteko epe luzagarrian gauzatu ahal izango da. Baltzu publikoek erosterakoan ordaindu duten prezio berean salduko dizkiete lur hauek aholkularitza-enpresa honi, interesak kobratzeko aukera baztertuta. Eragiketaren zalantzak kontuan izanik, Araba Garapen Agentziak 100 milioi pezetako hornidura jartzea erabaki du eta zenbateko hau 1998an egoera-balantzearen pasiboan jasoko da, erosketa-eragiketa kontabilitatean jaso gabe.

Finkak saltzen dituen enpresak 2.300 milioi pezeta inguruko tributu-zorrak ditu Arabako Foru Aldundiarekin.



- 1998ko urtealdian aplikatutako ordainsarien gehikuntza desberdina da lanpostu desberdinen artean eta ez da hala egiteko arrazoirik eman.

Komenigarria izango litzateke urtealdiko ordainsarien gehikuntza finkatuko duen enpresa-ituna izenpetzea.

III.4 NATURGOLF, SA

Baltzu Publikoaren jardueraren kudeaketari dagokionez, prezio eta sustapen politika abian jarri da eta Baltzuak eman digun informazioaren arabera, politika horrek abonatu kopurua igotzea, lehiaketak egitea, irakaskuntza ikastaroak ematea eta abar eragin du, datozen urteetan ustiapenak eragindako sarreretan isla izateko itxaropenaz; nolahi ere, Baltzuak ez du 2000 edo 2001. urtera arte oreka lortzea espero. Ildo honetan, negozio-zifrak gora egin du, 1996an 36 milioi pezetakoa zen eta 1998an 50 milioi pezetakoa.

Azken bi urtealdietan Ustiapen-emaitzaren garapenari buruzko azterketa egiten badugu, ustiapenari emandako diru-laguntza kenduta, honako datu hauek ditugu:

	Milioi pta.		
	1996	1997	1998
Ustiapen-galerak (galera eta irabazien kontua).....	(20)	(42)	(56)
Ken: ustiapenari emandako diru-laguntzak	(25)	0	0
EGIAZKO USTIAPEN-GALERAK.....	(45)	(42)	(56)

Ondoren, antzemandako alderdi esanguratsuenak azalduko ditugu:

- 1998ko urtealdian etorkizuneko urtealdietako pertsonal-gastuetan igoera nabarmena eragingo duten langileen kontratazioak egin dira (bi basozain, gerente bat eta administrari-laguntzaile bat). Honek, era berean, ustiapen-galerak gehitzea eta baltzu honen kapitala Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuen kargura etengabe zabaldu behar izatea eragin dezake.
